



Kirol albiste ugari, egunotan

Leizaran Erniok Euskal Kopari ekin dio eta datozen asteetan abiatuko da futbol eta eskubaloi-denboraldia / 10-13

AIURRI

Ospakizuna, Sorabillan

Amabirjinaren egunaren eguna ospatu zuten, goizez eta arratsaldez / 8-9

Onintza Enbeita eta Sustrai Colina kantuan ariko dira Sanmielen atariko bertso-afarian / 5

Urnietako Etxeberri plaza jaietan murgilduko da, asteburu honetan / 14

LEKAIO ETA SAROBE IKASTAROAK

24-25

Matrikulazioa: irailak 10-20
Informazio guztia Urnietako Udalaren webgunean



Egizabal aktorea udazken honetako Jabekuntza Eskolaren aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

Jabekuntza Eskola, martxan

Hedabideen zein herritarren aurrean, birritan aurkeztu dute Jabekuntza Eskola. Doakoak dira ikastaro guztiak, baina mugatuak dira plazak. Horregatik beharrezkoa da aurrez izena ematea

Erredakzioa ANDOAIN

Hedabideen aurrean, Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun sailerako zinegotzi ahaldunak eta Sandra Ba-

rrenetxea berdintasun teknikariak egin zuten udazkeneko zikloaren aurkezpena. Haizea Barandiaranek adierazi zuenez, "ikastaroen bitartez, emakumeen

ahalduntzea, emakumeen izaera autokontzientea, autoestimuen lanketa, gaitasun propioak ezagutzea eta espazioen berreskuratzea lortzen dira".



Udal ordezkariak eta Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikaria, zikloa aurkezteko prentsaurrekoan. AIURRI



Batukada taldean sartzeko aukera dago. AIURRI

Udazken honetan abiatuko den ikastaro-sorta

Ongizate emozional eta autozainketa lantegiak
Urriak 3, 17, 31; azaroak 14, 28; abenduak 12.
15:30-17:30, Arrate.
Irakaslea: Saioa Garmendia.

Eskalada hastapena
Urriak 4, 5, 11, 12.
17:00-20:30
Larunbatak: 10:00-13:30.
Irakaslea: Patri Espinar.

Gorputza suspertu eta sasoiu, sortuz eta jolastuz
Urriak 7, 14, 21, 28; azaroak 4, 11.
17:00-19:00, Urigain.
Irakaslea: Jaione Albeniz.

Batukada feminista
Urriak 7, 21; azaroak 4, 18; abenduak 9.
18:00-20:00, Leizaran Institutua.
Botapa Batukada.

Arte garaikidea eta feminismoa
Urriak 8, 22; azaroak 5, 19; abenduak 3, 17.
18:00-20:00, Arrate.
Irakaslea: Ainara Martin.

Korrikaren munduan murgilduz
Urriaren 8tik azaroaren 14ra.
19:00-20:00, Allurralde.
Irakaslea: Maria Rengel.

Sendabelarrak ezagutzen I hasiera asteazkenak.
Urriak 9, 16, 23, 30.

II aurreratua, ostegunak.
Urriak 10, 17, 24, 31.
18:00-20:00, Urigain.
Irakaslea: Kris Lizarraga.

Ginekologia naturala eta maitasunezkoa
I hasiera ostegunak. Azaroak 7, 14, 21.
II aurreratua ostegunak. Azaroak 28; abenduak 5, 12.
17:00-20:00, Urigain.
Irakaslea: Clara Gutierrez.

Brikolaje lantegia
I taldea larunbata. Azaroak 9.
II taldea larunbata. Azaroak 16.
09:30-14:30, Urigain.
Irakaslea: Carmen Melchor.

Autodefentsa feminista
Azaroak 23.
09:30-14:30, Allurralde.
Emagin.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala
Asteartero.
16:30-18:30, Urigain.
Sorburu.

IZEN-EMATEA ETA HARREMANA:
Andoingo Udaleko Berdintasun lansaila.
E-posta: jabekuntza.andoain.eus
Tel. 943 300 830, luz. 380 – 385;
berdintasuna@andoain.eus
Andoingo Udaleko ATARIA arreta zerbitzua.

Andoain 2024, irailak 12

Iritsi da eguna!

**Egigun denon artean!
Izugarria izango baita!**

***Andoaingo euskera, bihotzetik kalera!!
ekimenaren aurkezpena***



**Non: Gurutze Santuko
kaimuturrean (espigoian)**

Ordua: 19:15

Aire Eire taldea zuzenean

(Oharra: eguraldia okertuz gero,
Goikoplazako kontzejupean egingo dugu)



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Trutxuelotarren argazki-funtsa

Argazkigintzan aritu ziren 1984 urtera arte, Juani, Emilio eta Ramon anai-arrebak Andoainen eta Amasa-Villabonan zituzten dendetan. Urte horretatik aurrera, Ramonek Amasa-Villabonako dendaren ardura hartu zuen, beti bere arreba Juani zenaren laguntzarekin. Iraganeko milaka argazki Amasa-Villabonako Udalaren esku utzi dituzte.



AIURRI



Gamer dendaren erakusleihoa, Kale Nagusian, iazko ekimenean. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Bikaina

Antolatzaileak, laguntzaileak, parte-hartzaileak, ikuslegoa... Denei esker emakumezkoen Gipuzkoako Txirridularitza Itzuliaren aitzin-etapa apartekoa izan zen. Emakumezkoen txirridularitzak hauspoa behar du eta horrelakoak aproposak dira.



AIURRI

Bezeroaren Astea Andoainen, Outlet Kalean ekimenaren atarian

Irabazleak 2.500 euro balio duen bidaiara irabaziko du. Zigiluak lortu eta txartela beteta parte har daiteke zozketan

Erredakzioa ANDOAIN

Astelehenera bitarte (irailak 16), Salkineko merkatalguneetan txartelak banatuko dituzte eta bertan erosketa bakoitzeko zigilu bana itsatsi beharko da. Sei zigilu behar dira zozketan parte hartu ahal izateko. Urriaren

20ra bitarte lor daitezke zigiluak eta zozketa urriaren 23an egingo dute. Salkinek adierazi duenez, bidaiaren balioa 2.500 eurokoa da.

Outlet kalean, edizio berria
Irailaren 21ean eta 22an da.

Otieta, agertoki bilakatuta

Tenpora taldeak, aurreko larunbat arratsaldean, zuzeneko emanaldia egin zuten Leitzarain Bisitarien Etxearen kanpoaldean. Emanaldietarako toki aproposa da, Andoaingo herrigunetik bertara oinez pasieran joateko gomendagarria. Ekainean egitekoa zen emanaldia eta, eguraldia tarteko, atzeratu behar izan zuten.



Urnieta
udala



Enbeita eta Colina kantuan ariko dira

30 euroko prezioan, txartelak dagoeneko salgai daude Urnietan eta Andoainen. Zehazki, Unietako Kantoi, Oianume eta Matxon eta Andoaingo Stop eta Aiurrin. Prezio berean menu begetarianoa eskainiko da, aurrez eskaera hori egiten bada

Oianume sagardotegia Andoain eta Urnieta artean dago, eta datorren irailaren 20an alde bateko eta besteko bertsozaleak elkartuko dira. Iluntzeko 20:00tan hasiko da afaria eta jarraian giroa berotuko dute Sustrai Colinak eta Onintza Enbeitak. Amaia Agirre ariko da gai-jarzaile lanetan. Aurkezpenik behar ez duen hirukotea da, aski eza-guna bertsozaleen artean. Zalantzarik gabe, 30 euroko prezioan, bapo afaldu eta bertsoez gozatzeko aukera paregabekoa izango da. Txartelak (aukera begetarianoarekin) salgai dira, honezkero hainbat saltokietan. Ez utzi azken egunerako!



2022an bertsozale ugari elkartu zen Oianumen. Orduko hartan, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus aritu ziren kantuan. AIURRI



IRITZIA

ALBA CABRERA
JAUREGI URNIETA

Sanmielen aurreko bertso-afaria

Hamar, bederatz, zortzi, zazpi, sei, bost, lau.. Hasi da festen atariko atzera-kontaketa! Udan gorritutako azalak eta patxada luzeko egunak atzean utzita, irailak herrira dakarren ospakizun-giroaz gozaten hasiko gara, aurki, urnietarrak. Izan ere, hemen da, ohiturak aginduta, Sanmielen iragarle bihurtu den bertso-afaria! Onintza Enbeita eta Sustrai Colina igoko dira oholtza gainera, Amaia Agirrerren gidaritzapean... Nahi duten doinu eta neurrian, amu ederra botako digute bertsozaleoi, pixkanaka-pixkanaka horren kuttuneko ditugun festetan murgiltzeko. Hiru, bi, bat... Hemen dira Sanmielak! Badator Miela! *Muttu hai!*



Ana Pozas zinegotzia. URNIETA

Urnietako ikastaroetan izena emateko epea, zabalik

Erredakzioa URNIETA

2024-2025 ikasturteari begira jarri da Urnietako Udala: gizarte, kultura, kirol eta osasun arloko ikastaroen aurkezpena egin du. Izena emateko epea irailaren 20an amaituko da.

- Lekaio: Joskintza (helduak), Marrazketa eta Pintura (haurrak eta helduak) eta Zur taila (helduak).
- Sarobe: Funky (haurrak eta helduak) eta Yoga.

Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa

EUSKARA-IKASTAROAK

Urnietako AEKn

MATRIKULAZIOA ZABALIK!

Irailaren 2tik 30era.

- Maila guztiak
- Aurrez aurreko taldeak.
- Zilegi Eskola. Mintzalagun. Gurasolagun. Hikalagun.

Matrikulazioa eta informazioa:

San Juan 42, 1. solairua
662 338 747 · urnieta@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Urnietako: matrikularen % 100, gehienez, langabetuentzat eta % 85, gehienez, langileentzat.

HABEren dirulaguntza % 100era arte maila gaindituz gero.

IN MEMORIAM



Protesta-ekitaldi batean Correoseko hainbat langile, artxiboko irudian. Requeijo eskuinean ageri da. AIURRI

Andoainen urte luzez aritutako postari fina

Duela gutxi zendu da Agustin Requeijo Paz, 59 urte zituela. Gertu-gertukoa, jendartekoa egiten den beti-betiko postaria zen Requeijo, lankideek zein herritar ugari aitortu dutenez

Xabier Lasa ANDOAIN

Sare sozialetan ere izan du oihartzuna bere galerak, eta lagin gisa, bere eguneroko banaketa-ibilbidean bizi den Mari Jose Arrutik honakoa idatzi zuen: “Galera haundia! Gizon jatorra, leiala eta apala. Eskerrik asko zure lana hain txukun egiteagatik. Zauden tokian zaudela ere, har ezazu besarkada beroa”.

Lankideak ere animoz lurjota zeuden, lankidearen heriotzaren berri izan zutenetik. Bost langilek osatzen dute Andoaingo Correoseko zerbitzua. Abuztuan, berriz, hiru ari dira lanean,



Agustin Requeijo Paz. AIURRI

oporrak eta bajak direla medio. Horrela, azken urtetan Correosen aplikatzen ari diren murriz-

keten politikak eraginda, hiru langileek ezinean dabilta lan-karga guztiarekin. Nolanahi ere, arauz dagozkien hoge minutuak hartu dituzte Aiurriarekin hitzordua egiteko. Ondarreta kaleko Edur kafetegiko terrazan, Manuel Agustin Requeijo lankidea hipzide hartu dute.

Hain zuzen, lanean diren Diego Benitez, Maitane Velasco eta Arantza Eizagirre eta egunotan bajaran den Marisol Gomez agertu dira hitzordura: “Ezin goibelago gaude, sinetsi ezinik Agustin gure artetik joan zaigula. Egia da azken asteetan adieraz-



Maitane Velasco, Diego Benitez, Arantxa Eizagirre eta Marisol Gomez zendutako postariaren lankideak. AIURRI

ten zigula nola sentitzen zuen nekea, baina aldi berean, bazekukan ilusioa gizonak, izan ere, 59 urte izanik, lau hilabete besterik ez zitzaizkion geratzen aurre-jubilazioa hartzeko”.

30 urtetan, gertu-gertuko postaria

Berezi samarra da bere kasua Andoaingo Correos zerbitzuan, 30 urtetan, gutunen banaketarako ibilbide berberari eutsi baitzion: Plazaola, Olagain auzoa, Joakin Larreta, Extremadura kalea, Galardi kalea... Begiak itxirik ere ederki asko ezagutzen zituen kaleak, eskaratzak, auzoak, eta, batik bat, auzotarrak.

Egunotan hasi dira haren bil-lagunak lankidearen falta sentitzen, nonbait: “Baten batek penatuta esan digu egunotan, “eta orain, zer egin behar dugu Agus gabe?”. Izan ere, gertutasuna eta konfiantza eragiten baitzuen auzotarren artean”. Lantokian, Agustin guztiz zorrotza eta serioa izan ohi zela baieztatu digute lau langileek: “Egoitzan, beste lankideekin, edozertan laguntzeko prest agertzen zen gurekin, beti, eta baita ere, kaleko lanean ere; izan ere, ahal zuen guztia ematen zuen gutunak bere helbidera

iritsi zitezen, sekula ahotsa altxa gabe edo jenioa txartu gabe helbideren bat gaizki idatzita bazetorren”.

Pertsona fin bezain diskretoaren itxura transmititzen zuen: “Halaxeko irudia zeukan kanpora begira. Ez zen bere burua nabarmentzearen aldekoa, nahigo izaten zuen besteei entzun jendartean zenean. Baina, gero, bazuen beste alderdia, eta konfiantza hartzen hasiz gero, erakargarria egiten zitzaizuna. Esate batera, bazuen ironiarako gaitasun fina; harekin barre ederrak egin izan ditugu lantokian!”.

Burua agertu zale ez izate horrek nortasun aberatsa ezkutatzen zuela berretsi dute lauek, “autodidakta eta eklektikoa zen musikarekin eta beste hainbat kultur adierazpenekin, eta bazuen jakinduria hainbat arlotan”.

Agus lankidea gogoan hartuta une hunkigarriak izan dituen solasaldia eten zuen laukoteak, agortu baitzitzaie lantokian baimentzen zaizkion arauzko atsedendaldiko hoge minutuak. Hortaz, terrazako mahaitik altxa, eta badoaz eguneko etxez etxeko jarduna osatzera abiatu dira, berritua, Andoaingo Correos zerbitzuko langileak.

**AGUSTIN REQUEIJO
POSTARIA
GUZTIZ ZORROTZA
ETA SERIOA ZEN
BERE LANEAN**

**HOGEITA HAMAR
URTEZ ANDOAINGO
CORREOS ZERBITZUAN
LANEAN ARITU ZEN
REQUEIJO**

"Gure balioak gertutasuna eta konfiantza dira"

ANTONIO ROSCO FUENTES KALE NAGUSIKO ROSCO JANARI-DENDA

Uztailaren 30ean itxi zuen Andoainen urtetan irekita eduki duen Rosco Janari-denda. Kalitate handiko elikagaiak salgai izateagatik hartu zuen fama bezeroen artean



Antonio Rosco Fuentes urnietarra aski ezaguna da Andoainen, Kale Nagusian izan duen negozioari esker. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Uztailaren 30ean, asteartearekin egin zuen azken lan-eguna Antonio Rosco Fuentesek. Erretiroa hartzeko unea jada iritsi zitzaio- la uste izanda itxi zuen denda urnietarrak: "Urteak erruz kotizatu izan ditut, 16 urtez gerotik aritu izan bainaiz lanean, eta iruditu zait bazela bizitzari beste norabide bat emateko moentua. Nolanahi ere, emaztea

izan da azken bultzada eman didana, esanez behin bizi gara- la eta ez gabiltzala denboraz soberan". Roscok, gaztetatik hasita, urte mordoa egin zuen eraikuntzaren sektorean: "Halako batean, baina, 2011ko krisia heldu zen, kale gorrian geratu ginen asko eta asko. Non edo han birziklatzea egokitu zitzaigun, eta sekula pentsatuko ez nuen sektorean, janari-dendari

heldu behar izan nion. Hamar urte egin ditut Kale Nagusiko komertzioan baita pozik egin ere, egia esanda".

Goizero 06:30ean esnatuz has- ten zen lanean. Mercabugatitit elikagaiak aukeratu eta gaueko 20:00tan ixten zuen negozioa, eta gaueko 21:00ak aldera etxe- ra erretiratu. Igandeetan ere ireki izan zuen zenbait urtetan, baina atzera egin zuen bolada

bat pasata, astean egun bateko atsedendia sakratua zela era- bakita.

Bezeroekin tratu ona

Itxi aurreko egunetan iragarri zuen jubilazioarena bezeroen artean, eta, harrezkero, ez ziren gutxi izan urreratu zitzaizkionak, Roscok aitortu duenez. "Zorion- tzeraz eta besarkada ematera etorri zitzaizkidan gehienak, baina izan ziren penatuta zeto- zenak ere, galdezka ea hartaz gero nora joan behar ote zuten erosketak egitera... Bartzuek zein besteek emozio handiko uneak biziarazi zizkidaten, barru- barruraino sartzen diren horieta- koak".

Bezeroekin edukitako tratu pertsonala izango da hamar urte- ko ibilbidearen ostean gogoan geratuko zaion oroitzapenik gozoena: "Zalantzarik gabe, hala da! Bezeroekin ongi moldatu izan naiz beti, eta beraiek ere antzera nirekin. Alde horretatik, ez daukat batere kezatzeko mo- tiborik, aitzitik!".

Kalitatezko generoa

Jendarte onekoa izateaz gain, kalitate handiko elikagaiak sal- tzeagatik famatu dute Rosco Andoainen: "Argi neukan janari- dendak berezitasunaren bat eduki behar zuela, zerbait era- kargarria bezeroen ikuspegitik. Beraz, saiatu izan naiz, esate batera, baratze-ko barazkiak, frutak edo lekaleak bertako ekoizle txikienekin lortzea edo Nafarroatik ekartzea, urdaite- giko produktuak Extremadura edo Salamancakoak izatea edo- ta Urnietako Rosco enpresakoa, gaztak ere marka berezikoak izatea... Politika horren aldeko apustua egin nuen bere garaian, eta ondo irten zitzaidan".

Etorkizun goibela, merkatarit- xikientzat

Kale Nagusian eta inguruetako kaleetan janari eta fruta denda ugari izanik eduki ditu atearik zabalik hamarkada oso batez, eta, hala eta guztiz ere, ez zaiola gaizki joan adierazi du Antonio Roscok. "Denentzat bazen negozioa. Aldaketa nabarmena, niretzat ez ezik gainontzekoent- tat ere, Ilarramendiko eremuan ipini dituzten bi saltoki erraldoien irekierak ekarri zigun, eta okerrerako, noski!".

Merkatarit txikiei begira ez du aurreikuspen pozgarririk egiten Roscok. "Azkenean, ikusita dago denda bakar batzuk baino ez dutela aurrera egingo, zoritxar- rez. Denda txikien kasuan, gure balioak gertutasuna eta konfian- tza dira; herri bati kale-bizitza itsasten diote. Giza-komunitatea egiten laguntzen dute, eta horiek faltatzeak herriari egiten dio kalte. Esate batera, une batez itxi ditzagun begiak eta irudika dezagun Kale Nagusia dendarik gabe...".

Jubilatuta, lasaitasuna nagusi

Roscok nahiko finkatuta dauka bere aurrera begirako bizimodu- a. Ezustekorik gabekoa nahi du, orain arte eduki ez duen patxada izan dadila nagusi: "Ez dut estuasunik eragingo didan ezer berezirik eduki nahi. Jai- ki iratzargailurik gabe, etxeko- lanak egin, bazkaria jarri, bi- loba eskolatik hartu eta bere amaren esku utzi, emaztearekin paseatu... Emazteak eta biok bidaiaren bat edo beste ere egingo dugu tarteka, jakina. Lehen banituen zenbait hobby, baina bazterrean utzi behar izan ditut urteen poderioz. Behintzat, perretxikoen bilke- tari eutsi nahi nioke!".

IRAILAK 14 16:30EAN
GALARRETA JAI ALAI (HERNANI)

01. PARTIDA | 3 SETERA
GOIKOETXEA V · GOIKOETXEA VI VS GURRUTXAGA · ZUBIRI

02. PARTIDA | 30 TANTORA
ANSA II VS BARRENETXEA IV

03. PARTIDA | 3 SETERA
URRIZA · LARRAÑAGA VS SEGUROLA · AZPIROZ

ORNA ERREMONTEA BIZIRIK
K
SUKIA
PAPELERA GIPUZKOARRA COOP. DE ROSARIO, S.A.U.
HAIN GIPUZKOA
Orona
AIURRI



Sorabillan jaio edo bizi diren hainbat bizilagun elkartzeko aitzakia polita izaten da Amabirjinaren eguneko ospakizuna. AIURRI

Egun osoko festa, Sorabillan

Amabirjinaren eguna ekitaldiz bete zen Sorabilla auzunean. Urteak dira jaiak bertan behera geratu zirela, eta haria erabat eten aurretik, meza eta hamaiketako antolatze ardurari eusten dio lagun talde batek. Aurten, eguna aberatsagoa izan da



Hamaiketako egin zuten igandean, mezaren ostean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Egun handia izan zen igandekoa Sorabilla auzoan. Besteak beste, hamaiketako, berreskuratu duten 1795eko antzinako erlojuaren aurkezpena, auzoko helduenak biltzen dituen hamaiketako eta bertso saioa izan ziren goiz eta arratsaldean.

Eguerdian, Sorabillan jaio eta hazitako auzotar ugari erakarri zituzten Alberto Agirre abesbatzarekin ospatu zuten mezak zein ondorengo hamaiketakoak. Gainera, jaia biribiltzeko, Burdina taldeak berriki berresku-

ratu dituen 1795eko erloju zaharra eta auzoko jauntxoak izan zen Joakin Larretaren aulki dotorea aurkeztu zituzten. Burdinako kide Joxerramon Berrondok eta Juan Mari Elosua eta Xabier Alvarez erloju konpon-tzaileek eman zituzten azalpenak.

1795EKO ANTZINAKO ERLOJUAREN AURKEZPEN AEGIN ZUEN BURDINA TALDEAK

Arratsaldean, berriz, bertso saio ederraz gozatzeko aukera eduki zuten eliza-arkupea gainezka jarri zuten bertsozaleek. Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze aritu ziren bertsoan, Aritz Eskudero gai-jartzaile zutela. Punttuka Bertso elkarteak antolatu zuen jaialdia, Andoaingo Udalaren eta Sorabillako Jai Batzordearen laguntzarekin.

Egun osoko makina bat argazki eta bideo, ikusgai dago, nahieran, Aiurriren web gunean.



Antolaketa lanetan aritutako lagun-kuadrilla, hamaiketakoan. AIURRI



San Martin elizako aitzinako ordularia ezagutzeko aukera izan zen. AIURRI



Burdinako kideak eta konpontzaileak, ordulari zaharren ondoan. AIURRI



Meza egin zuten Amabirjinaren egunarekin bat eginez. AIURRI



Aspaldiko bertso-saioa berreskuratu zuten Sorabillan, aurreko igandean. AIURRI

Ananak erosten, saltoki ezagunean

Aritz Eskudero gai-jartzailea:

“Badakigu ligatzeko sistemak modernoak ditugula. Lehen erromeriak ziren bezala, orain dena mugikorrarekin egiten da. Baina azken joera, Mercadonara joatea omen da, sare sozialetan irakurri dugunez. Esaten dutenez, piña edo anana bat saskian buruz behera jarriz gero, adierazi nahi omen duzu ligatzeko gogoz zabilbiltzala; gainera, ordutegi finkoa dago horretarako. Maialen, zu eguneroko erosketa egitera joan zara. Piña jateko gogoia eduki, eta saskian sartu duzu. Derrepente, Amets ikusi duzu bazterretik keinu arraroak egiten. Ez dakizu zer nahi duen.

Maialen Lujanbio:

Afaria pentsatuta, dena armonia. Piñatxo bat hartuta pozik nengon ia. Tipo honek begiratzeko nolako mania! Honek ere izango du gozoan premia (bis)

Amets Arzallus:

Bestela ezin nun ta ni naiz estrategia eta estrategia honekin heldu naiz honera. Ez bazeneki gisan zabilta, bai zera! Zailan plantak egiten ondo ari zera (bis)

Maialen Lujanbio:

Hau gozo premian ta ni lendikan gozo apariakin pentsatuz lasai ta airoso. Etorri ta “ananana” hor hasi da oso, derrepente hitz totelka eta nerbioso (bis)

Amets Arzallus:

Bai ezin ahoskatu ezin garbi ekin, ligatzea errexa

etzala banekin. Hamabi piñaburu dabilta karroekin ta ni juxtu juntatu artuburuakin (bis)

Maialen Lujanbio:

Osto tente-tentea da piñak daukana, ta nik artabixarra mototxean barna. Igual bukatu egin ote da anana. nahi badezu egingo degu erdibana (bis)

Amets Arzallus:

Erdibana egitera nahi al nauzu bultza? Biak kasualidadez pasilloan kruza. Zu berezia zera mami ta geruza, barrutik anana ta

kanpotik kaktusa (bis)

Maialen Lujanbio:

Nik anana erosi eta hau segitzen enekin joku honen izan eta izen Erdibana esan dizut eta zeraz ari nintzen: zerorrek ere ez dezu errez entenditzen (bis)

Amets Arzallus:

Len erdi enkriptatuta egin dezu hitza. Orain ere erdibanakin zu hortxe zabilta. Nik ez det entenditzen, alferrik ez mintza. Ez nintzan hemen egongo abila banintza (bis).

Bertso-sorta zabala, Aiurri.eus webgunean.



Lujanbio, Arzallus, Elustondo, Mendiluze eta Eskudero. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Ines Santalla galiziarra helmugara iristen, Gipuzkoako Itzuliko aitzin-etapan, zaletuen eta txirrinduzaleen begiradapean. **AJURRI**

Ikuskizun aparta herriko kaleetan

Aurreko ostiral arratsaldea Urnietako plaza eta inguruak txirrindularien eremu bilakatu zen. Bazterretan, nonahi, prestaketa-lanak ondo egiteko arrabolak aurki zitezkeen. Eta, errepidean, lasterkariak banan-bana erlojuaren aurka borrokan

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietatik abiatu zen emakumezkoen Gipuzkoako Itzulia, ostiral arratsaldean. Ordizian eta Elgoibarren izan zuen jarraipena, eta guztietan lasterkari bat nabarmendu zen: Alejandra Neira Dominguez galiziarra. Hiru etapatan nagusitu zen eta, ondorioz, bera izan da aurtengo Gipuzkoako Itzuliko irabazlea. Tenerife taldeko ki-deekin batera, urrunetik etortitako txirrindulariak maila bat gorago daudela erakutsi zuten. Euskaldunak atzeraxeago ibili dira, baina, hala ere, nahiko txukun. Urnietako lasterketan, esaterako, Ane Zubeldia Peña-garikano sailkatu zen bigarren postuan. Gerora azpitzapeldun izan den Clara de la Roca kanariarraren aurretik sailkatu zen lehen etapen Haimar Zubeldiaren alaba.



Ainhoa Ostolaza eta Alejandra Neira txapelduna. **AJURRI**

Ezaguna denez, Urnietako etapa bi kilometrora iristen ez zen erlojuaren aurkako etapa ikusgarria izan zen. Laburra baina

oso teknikoa, partaideentzat ariketa nahiko zaila. Ikusleentzat, aldiz, gozamen. Bertatik bertara igarotzen ikusi zituztelako txirrindulari guztiak. Proba jarraitza hurbildu zirenek jokabide bikaina izan zuten, partaide guztiei animoak emanez. Urnietako esperientzia errepikatze modukoa izan da.

Urnietako etapa

- 1 Alejandra Neira (Galizia) 2:51
- 2 Ane Zubeldia (EH) +8"
- 3 Clara de la Roca (Tenerife) +11"
- 4 Noa Alderete (Tenerife) +11"
- 5 Irene Signo (Tenerife) + 12"

Sailkapen orokorra, Hiru etapak amaituta

- 1 Alejandra Neira 1:50:41
- 2 Clara de la Roca +1:33
- 3 Naiara Odriozola +1:59
- 4 Mainer Odriozola +2:30
- 5 Janna Musquera +2:33

Etapa ikusgarria Urnietan



Aitzin-etapako podiuma, ostiral arratsaldean. **AJURRI**

Galiziarrek eta kanariarrak Gipuzkoako Itzuliaren aitzin-etapan, eta lasterketa osoan, Galiziako eta Tenerifeko txirrindulariak nagusitu ziren. Haietik gertu aritu ziren Euskal Herriko ordezkariak.



Ibilbide osoan, zaletuak topatu zituzten lasterkariak. **AJURRI**

Zaletuen animoak Animoak, autografoak... Urnietako zaletuak, bereziki gazteenak, sutsu agertu ziren. Hain proba zehatz eta teknikoan eskertzekoa da txirrinduzaleen animoak jasotzea. Ez baitzen inondik inora proba erraza izan partaideentzat.



Hainbat partaide arrabola ganean, prestaketa-lanetan. **AJURRI**

Txirrindularien plaza San Juan plaza eta inguruak lasterkarien gune bilakatu ziren. 1,8 kilometroko proba egin aurretik beroketa lanak egitea garrantzi handikoa da eta, han-hemenka, arrabola ganean ikus zitezkeen txirrindulariak.



Hurria-Sahara elkarteak aintzat hartu zuen Euskaldunak, aurtengo edizioan. Argazkian, Danena eta Euskaldunako jokalaria Saharako bandera eskuetan dutela. AIURRI

Txapelketa, etxeko taldea

Danena eta Santo Tomas Lizeoa izan dira, Larramendi Txapelketaren 49. edizioako gonbidatuak. Etxean gelditu da garaipena. Aurtengo edizioak, gainera, izaera solidarioa izan du Saharak pairatzen duen egoera aintzat hartu baitzen

Erredakzioa ANDOAIN

Datorren irailaren 21ean debuta egingo du Euskaldunak Goren mailako ligan. Ubitarte zelaian ariko dira, lehen jardunaldian, Usurbil taldearen aurka. Horren aurretik, tradizioari jarraipena emanez, Andoainen Larramendi txapelketa jokatu ohi da. Denboraldi aurreko txapelketa garrantzitsua da eta, aurtengoan, liga berean ariko diren bi talde gonbidatu zituen Euskaldunak: Danena eta Santo Tomas Lizeoa. Hiruen arteko txapelketan, Euskalduna nagusitu zen. Aurtengoak elkartasun kutsua izan zuen, Hurria-Sahara taldearen aldarrikapenarekin bat egin baitzuten.

Kirol mailari dagokionez, Danenaren aurka berdinketa lortu zuen (0-0), eta penaltietan urdinak nagusitu ziren. Andoaindarraren bigarren partidari iritsi



Euskaldunako jokalaria, pozarren, aurtengo koparekin. AIURRI

ziren golak, Euskaldunak 4-0 garaitu baitzuen Santo Tomas Lizeoa. Gauzak horrela, aurtengo kopa ez da herritik mugitu. Txapelketa, finean, etxeko taldea izan baitzen. Gaztañagaren mu-

tilek laster ekingo diote astero-astero jokatu den ligari. Aurreko denboraldian laugarren sailkatu ziren ligan, 30 partidatik 16 irabaziz. Ez litzateke txarra iazkotik gertu ibiltzea.



Paddle palak. WIKIPEDIA

Padel txapelketa solidarioa, Urnietan

Padel-txapelketa eta paella-jate solidarioa izango dira herrian, datorren hilaren 21ean

Erredakzioa URNIETA

London hizkuntza-akademiak Abay Etiopia GKErekin batera antolatu du jardura bikoitza: padel-txapelketa eta paella-jate solidarioa. Datorren irailaren 21ean izango da, larunbatarekin, Etiopiako Walmara herrian eguzki-energiak funtzionatuko duen putzu bat sortzeko dirua biltzeko xedez. Aipaturiko proiektu horrek komunitatean eragin nabarmena izango duela adierazi du Gobernu Kanpoko Erkundeak: "Ur garbirako hurbileko sarbidea bermatzean, hurreko egunero ura lortzeko kilometro luzerik egin behar ez izaten lagunduko diegu, horrela eskolara joan ahal izango dute".

Padel-txapelketa

Goizeko 09:00etan abiatuko da udal kiroldegian. Bikote bakoi-tzak 30 euro ordaindu beharko ditu izena ematean eta ongi-etorri poltsa jasoko du opari.

Elkartasun bazkaria

Musika lagun, padelean jokatu nahi ez dutenek ere izango dute zer gozatua. Paella jateko aukera izango baita 13:00etatik aurrera, Zubitxo plazan. Txartelak 10 eurotan salgai daude Guria zein Matxo tabernetan eta London hizkuntza-akademian.

Txapelketa



Euskalduna eta Danena. AIURRI

Dozenaka lagun elkartzeko Ubitarten, larunbat arratsaldean.



Penaltia jaurti zituzten. AIURRI

Ikusleen begietara ederra izan zen txapelketa.



Leizaran Ernio Inmobiliaria taldea, lehiari ekin aurretik. AIURRI

Euskal Kopa jokatzuz, debuta egin dute Euskal Ligan

Urriko lehen asteburuan abiatuko da Liga, eta, aurreko asteburuetan, Euskal Kopa jokatzeko ari dira. Denboraldia behar bezala prestatzeko partida ofizialak jokatzeko bezalakorik ez dago. Markagailuan lehia estua izan zen, aurreko larunbatean

Erredakzioa ANDOAIN

Klubaren gizonezko kategorian, historia egiten ari da Leizaran Ernio Inmobiliaria taldea, Xabier Amianoren gidaritzapean. Izan ere, estreinako, Andoaingo taldea Euskal Ligan ariko da. Aurten, klubeko emakumeak ere maila berean ariko dira lehiari. Agerian geratzen ari da Leizaran Eskubaloia kirol kluba azken urteotan egiten ari den lan ona. Leizaran Ernio Inmobiliaria taldearen kasuan, urteak dira Gipuzkoako onenen parean zebiltzala. Azkenik,

udaberrian, lortu zuten ametsa egin bihurtzea: Euskal Ligara igotzea. Orain arteko maila onari jarraipena emateko aukera paregabea dute andoaindarrek, baina maila berrian ikusgarri aritzea zail bilakatuko da. Bereziki, aurkari maila hobea delako. Ez da, beraz, denboraldi erraza izango. Errozkari eusteko gogotsu dagoen taldea du Leizaranek, eta ondo baino hobeto erakutsi zuten hori, aurreko larunbatean. Euskal Kopa jokatzuz debuta egin zuen Euskal Ligan. B multzoan ekin

dieta eta bertan dituzte Ligan aurkari ariko diren bi talde: Basauri eta Usurbil. Aurreko larunbatean, debutaten partidan, basauriarrek hurbildu ziren Allurraldera. Hasiera-hasieratik orekatua izan zen partida, nahiz eta bizkaitarren aldetik aldarte hobea antzematen zen. Andoaindarrak, hasieran bereziki, urduri antzera aritu ziren. Lehen jokaldietan abantaila hartu zuen aurkariak eta azkenerraino eutsi zion garaipenari. Andoaindarrek ez dute hasiera txarra egin.

Debuta Euskal Ligan



Xabier Amiano, partida aurreko azken aipamenak egiten ageri da. AIURRI

Lehen partida maila berrian Kopako partidak izango dira Euskal Ligako lehenak. Denboraldi erregularra urrian abiatuko da, andoaindarren kasuan, Allurralden bertan, Lau Bide Legazpiren aurka.



Olatz Olmedo prestatzailea eta Julen Callejon jokalaria. AIURRI

Lehen partida ofiziala Beroketa-ariketak egin ostean, Olatz Olmedo prestatzaileak eta Xabier Amiano entrenatzaileak azken xehetasunak eskaini zizkieten jokalariei. Minutuak aurrera joan ahala, ikuslegoa hurbiltzen hasi zen Allurraldera.



Basauriren aurkakoa izan zen Kopako lehen partida. AIURRI

Kopako bigarrena, Usurbilen Euskal Kopako B multzoan hiru talde ageri dira: Basauri, Usurbil eta Leizaran. Jardunaldi bakoitzean talde bati atsedeen egitea dagokio. Leizaranek bi partidak jarraian izango ditu. Asteburuan, beraz, Usurbilen ariko da.



Osin Trail Kirol Klubeko hainbat partaide. Tartean dira Andoaingo lasterkariak. OSIN TRAIL KIROL KLUBA

Lasterka, 500 eta 1.000 eskaileteretan gora

Bertxin XTrem lasterketaren lehen edizioa antolatu dute, Leitzarango eskailetan gora. Larunbat arratsaldean izango da, Osin Trail Kirol Klubak antolatuta. Bertxin eta Iberdrolako indarretxeen 500 eta 1.000 eskaileterak igo beharko dituzte korrikalariek

Xabier Lasa ANDOAIN

Osin Trail Kirol Klubeko kide den Paul Martin Larrañagak eman dizkio lasterketaren gaineko xehetasunak Aiurri aste-kariari. Zer dela eta antolatu duten hitzordua galderari erantzun dio lehendabiziko eta behin. "Leitzarango bailaran eta eskaileter horietan asko ibiltzen gara Osin Trail Klubekoak, eta gure artean maiz izan ohi ditugu xextrak, holako edo halako denbora egin dugula esanez. Ofizialki inon ez dago markatuta denborarik, eta horrek animatu gintuen lasterketa antolatzera".

Martinek argi utzi nahi izan du parte-hartzaileen artean, tartean mendi-lasterketetan goi mailan dabiltzanak izango badira ere, herrikoiek ere berdin-berdin daukatela lekua proban.

Lehen edizioaren antolaketa aparteko ahalegina eragin diela aitortu du Paul Martinek, "besteak beste, zortzi erakunde publiko zein pribaturik gure asmoa

azaldu eta horien baimenak lortu behar izan ditugu, denera; tartean dira Andoaingo eta Amasa-Villabonako udalak, Iberdrola, Aldundia eta URA". Tramiteak tramite, Martinek gaineratu du oso gustura daudela emaitzarekin, "Ziur gaude lasterketa erakargarria eta polita egingo zaie korrikalariei eta baita ikusleei ere".

Bi igoeren batuketa

Lasterketa bikoitza izango da berez, eta kronometratuta biak. Horrela, bi igoeretan egindako denborak hartuko dira kontuan, batu egingo direla alegia.

15:30ean abiatuko da lasterketa, eta 500 eskaileterak (berez, 436 eskaileter dira) igoko dituzte parte-hartzaileek. Eta guztiek amaitu ostean, 1.000 eskaileterei ekingo diete. Korrikalariek minuturo irtengo dira.

Denbora laburrena egiten duenak jantziko du txapela. Bestalde, sari gehiago jarri dituzte: batean zein bestean azkarrena-

rentzat, edota, herriko lehenbikoarentzat.

Antolatzaileek Bordaberriko industrigunean busa jarriko dute bai lasterkariarentzat eta baita ikusleentzat; hain zuzen, 13:00etan hasita, tarteka abiatuko da bertatik. Otietaraino iritsiko da busa, eta hortik, oinez, Leitzarango erreka ondotik doan bidezidorretik, Bertxingo indarretxeraino joan beharko dute. Itzulerako ere, busa 18:00etik 20:30era ibiliko da.

Bertaratzen diren ikusleek eskaileteretan egoteko aukera edukiko dute. 500 eskaileteretan, ezkerrean. Eta 1000 eskaileteretan, berriz, ezkerrean zein eskuinean; ezkerrean batik bat, zabala baita lekua.

Otietan bertan egingo dira dortsalen banaketa zein sari ematea. Sariak emateko ekitaldian, zizka-mizkak izango dira.

Izena emateko, bi aukera jarri dituzte antolatzaileek: kronoak.com, edota, rockthesport.com.

Sortu berria den mendi kluba

Osin Trail Kirol Kluba da Bertxin Xtrem lasterketaren antolatzailea. Mendian kirola egitea (oinetz, lasterka, eskia...) gogoko duten zenbait kirolariek sortu dute kluba.

Sortu berria da kluba esan bezala, eta dagoeneko 30 lagunetik gora egin dira bazkide bertan. Gipuzkoako beste edozein



Eskailaratan gora ariko dira. AIURRI

mendi elkarteren antzera, Osinek ere mendizale eta kirolari den edonori ematen dio aukera bazkide izateko eta, esate batera, federazioko segurua egiteko.

Bazkideen artean, mendi lasterketetan punta-puntan dabil-tzan kirolariak daude, eta hain zuzen, hamarrek taldea osatu dute jada lehiaketetan talde gisa puntuatzeko.

15:30EAN HASIKO DA PROBA, LARUNBAT HONETAN. IKUSLEEK GERTUTIK IKUSTEKO AUKERA IZANGO DUTE

MATRIKULA OFIZIALA 2024-2025

Frantsesa A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2*
Ingelesa A1 - A2 - B1 - B2.1* - B2.2* - C1*

* Ikastaro erdipresentzialak ere.

MATRIKULA ZABALIK:
Irailaren 2tik aurrera
Gutxieneko adina:
Frantsesa: 14 urte 2024an betetzea
Ingelesa: 16 urte 2024an betetzea

Prezioa: 72,36€
IKASTURTE OSOA

www.eitolosaheo.hezkuntza.net
info@eitolosaheo.net - 943 899 622

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

HITZALDIA

ANDOAIN Gerra eta soldaduska
EKAI Centerreko lehendakari Adrian Zelaia eta Mari Karmen Basterretxea antropologoa hizlari ariko dira.
Irailak 12, osteguna.
18:00, Urigain.

IKUSZIRKUS

ANDOAIN Sustrai
ZirkuSS Konpainiaren "Sustrai" ikuskizuna.
Irailak 13, ostirala.
19:30, Bastero.

ANDOAIN Dantza-bertikala
Harrobi Dantza Bertikala.
Irailak 13, ostirala.
22:00, Goikoplaza.

BISITALDIA

ANDOAIN Andoaingo Gudua
Gertakizunak ezagutzeko ibilaldi gidatua, Larramendi Bazkunaren eskutik. Izena ematea: harrera@larramendibazkuna.eus edo 656 782 521.
Irailak 14, larunbata.
Goikoplazatik, Unanibia zubira.

MENDI IRTEERA

ANDOAIN Euskalduna
Panticosa-Pico Bacias. Ibilbide luze edo laburra aukeran.
Irailak 14-15.



Ostiral arratsaldean abiatuko dira jaiak Urrietako auzoan. AIURRI

URNIETA Etxeberriko jaiak
IRAILAK 13, OSTIRALA
18:30 Txupinazoa.
19:00 Apar jaia.
20:30 Otra Kalle musika-taldea.

18:30 Etxeberri Talent lehiaketa.
20:00 Txiki Festa:
DJ Flowing.
21:00 Herri-afaria.
22:30 DJ Flowing.
00:00 Saturday night gaua.

IRAILAK 14, LARUNBATA
11:00 Diana: Txanbolin.
11:30 Ginkana eta jokoak.
13:30 Herri-bazkaria.
16:30 Bingoa.

IRAILAK 15, IGANDEA
12:00 Txirristra irristakorra.
18:00 Nimu Zirko saioa.
Irailaren 13tik 15era.

KIROLA

ANDOAIN Mugitu Andoain 2024
Kirol hitzordu ugari eta omenaldi-ekitaldia hainbat kirolarieri eta kirol-taldeei.
Irailak 21, larunbata.
09:00-13:00, Andoainen barrena.

ZIKLOA

ANDOAIN Alzheimerra aztergai
Zinema: "La memoria infinita"
Irailak 23, 17:30, Bastero.
Trivial txapelketa
Irailak 25, asteazkena.
10:30, Goikoplaza.

"Euskararentzat egoitza berria, Andoaingo erdigunean"

Ekitaldia ostegun honetan izango da Espigoian, 19:15tan hasita. Aire Eire taldea zuzenean ariko da


Erredakzioa URNIETA

Asmoa Larramendi Bazkunak agertu du, ohar bidez: "Ekinaldiaren helburua Andoaingo erdigunean, bihotzean, euskararentzat egoitza berria zabalteko diru-bilketa egitea da,

irailaren 12an abiatuko dena. Horretarako, hainbat ekintza antolatu dira. Nabarmenezkoak bi: lehenik, azaroaren 9an, Goikoplazan antolatuko duen azoka gastronomikoa eta artisauena; bigarrena, abenduaren 5ean

Bastero Kulturgunean antolatuko duen jaialdia, euskararen nazioarteko egunarekin bat etorritik. Gainera, abenduaren 21era bitartean antolatu ohi dituen beste ekintza batzuetan –Gau beltzan, esaterako–, diru-bilketako itsulapikoa ipiniko du, andoaindarrei eta bisitariei gogorarazteko zein diru-premia larria dugun; ipiniko dituzte baita ere bazkide berriak egiteko orriak, bazkideak direlakoan etorkizunari aurre egiteko bermerik sendoena".

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Estacion Rocafort
*Estreinaldia
Irailak 14, larunbata. 19:30.
Irailak 15, igandea. 19:30.

Irailak 16, astel. 17:00, 19:30.
Padre no hay mas que uno 4. Campanas de boda
Irailak 14, larunbata. 17:00.
Irailak 15, igandea. 17:00.



SINOPSISIA

Estacion Rocafort

Zuzendaria: Luis Prieto. **Aktoreak:** Natalia Azahara, Javier Gutierrez, Valeria Sorolla, Albert Baro, Xavi Saez. **Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Marrazki Suspentsea. **Iraupena:** 89 m.

Intriga eta emozioa metroan

Misterio batek astindu du Bartzelonako Rocafort metro geltokia. Laura (Natalia Azahara) han lanean hasten denean, laster aurkituko du jazartzen hasiko zaion legenda bat. Laurak, egia aurkitzeko prest, laguntza eskatuko dio Romani (Javier Gutierrez).

Ordutegi aldaketa Basteron

Asteburu honetan, zinema emankizunaz gozatzeraz hurbildu denak antzeman du ordutegietan aldaketak izan direla. Abendura bitarte probaldiari ekin dio Basterok eta, sasoi honetan, gaueko emanaldiak kendu egin dituzte.

III. GURRU MEMORIALA

IRAILAK 15 SEPTIEMBRE

NESKAK 9:00-11:15h

MUTILAK 11:30-14:00h



"Sustrai" ikuskizun berriena Andoainera iritsiko da ostiral honetan. AIURRI

"Sustrai" zirku ikuskizuna, Basteron

ZirKuSS konpainiak bere lehen ikuskizuna estreinatuko du, ostiral honetan, 19:30ean, Bastero Kulturguneko Auditorioan. "Gure Zirkua"-n artista egonkorra den Lander Brionesen zuzendaritzapean ekoiztu dute "Sustrai" izeneko ikuskizuna

Erredakzioa ANDOAIN

Konpainiaren lehen ekoizpenak "Sustrai" du izena, hilabeteetako lanketaren ondorioz garatu du tena. Show berritzailea dela diote, "iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin jolasten duena, eta zirku garaikideaz gain, arte plastikoen erakustaldia eskaintzen duena". Zirkua, akrobaziak, dantza eta antzerkia

uztartzen dira, beraz, emanaldi osoan: "ZirKuSSen helburuetako bat zirkua sustatzea eta irakastea da. Arte eszenikoak esploratzeko, sortzeko eta garatzeko lekua". ZirKuSS taldean artista gazte sorta ariko da. Interpretazio taldea honako artista hauek osatzen dute: Alexandre Sierra, Toni Gutierrez, Paloma Farga, Olivia Bernardo, Miren Barrena,

Matthias Elgueta, Iñigo Arroyo, Dominika Krzymowska eta Asvin Lopez.

Lander Briones, zuzendaria

Publiko zabalarentzat ezaguna da Briones, "Gure Zirkua" ikuskizuneko partaide baita. Ikuskizuna Gil Harush koreografoaren eta Maialen Alberro dantzariaren lankidetzarekin ondu du.



IkusZirkus zikloaren baitan aurkeztu dute "Sustrai". Eta datorren astean 'Mute' ikuskizuna taularatuko dute.

IkusZirkus zikloaren bigarrena, datorren astean

Cia Orain Bi konpainiak ikuskizuna taularatuko du Zumea plazan, datorren irailaren 21ean. Honatx, ikuskizunaren aurreapena: "Mutatu aditzaren aginduzko singularreko hirugarren pertsona: pertsona, animalia edo gauza baten itxura, izaera, egoera eta abar aldatzea. Mutazioa etengabeko zerbait da, eta horren gaineko emankizuna egingo du Cia Orain Bi konpainiak. Egiturak, pertsonak... mutatzeko beharraz jardungo da. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da ikuskizuna.

Andoaingo Udala, IkusZirkus zikloaren bitartez, zirkua sustatzen ari da. Urtez urte, zirkoren alorreko puntako emankizunak antolatzen dira Andoaingo hainbat gunetan. "Sustrai" eta "Mutatu" ikuskizunak dira aurtengo egitarauan txertatu dituztenak.

Dantza bertikala, ostiral gauean

Ostiral honetan bi ikuskizun izango dira Andoainen. ZirkuSS konpainia arratsaldean ariko da Basteron eta Harrobi Dantza Bertikala konpainia, berriz, Goikoplazan. Gaueko 22:00tan izango da eta emanaldia doakoa da. "Geure(R)a" ikuskizunak kritika onak jaso ditu. 2023ko Leioako Umore azokan, esaterako, aipamen berezia jaso zuten.

Merezimenduak, jarraian: "Zuzeneko musikaren, irudiaren eta dantzaren arteko fusio koordinatuagatik eta historian emakumeen oroimena zalantzan jarri eta lekualdatzen duen hari poetikoagatik".



"Geure(R)a" ikuskizuna. HARROBI

OUTLET

IRAILAK 20-21

IRAILAREN 20AN
GORA KALETXIKI
TXARANGA
17:00-19:30

BEZEROAREN ASTEA

ANDOAIN

BIDAIA BATEN ZOZKETA!!

EROSI ANDOAINEN

6 ZIGILU

- TXARTELAK IRAILAREN 16TIK AURRERA, AGORTU ARTE.
- ZIGILUA LORTZEKO EPERA: URRIAREN 20RA ARTE.
- ZOZKETA: URRIAK 23

Salkineko komertzioetako 6 zigilu ezberdinekin 2.500€ko balioa duen bidaiaren zozketan parte hartuko duzu

BERTSO AFARIA

IRAILAK 20, OSTIRALA

20:00. Oianume, Urnieta. 30€

Onintza Enbeita

Sustrai Colina

Gai-jartzailea: Amaia Agirre

Sarrerak dagoeneko salgai

Txartelak: Kantoi, Matxo, Oianume, Stop, Aiurri

Antolatzaileak:

